


IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA

Sorrera gertu



Kaixo herrikide!!!

Apirilaren 14an Igeldoko Toki Entitate Txikiaren inguruko galdeketa izan genuen eta %85eko aldeko bozka jaso-ta, Foru Aldundiaren erabakiaren zain geratu da sorrera. Epe motzean izatea espero da. Gaiaren inguruko azalpen

guztiak bildu ditugu Herri Kontseiluari egindako elkarrizketan.

Bestalde, hainbat festa eta ospaki-zun ere baditugu datozen hilabeteetan eta horien berri ere baduzue ale hone-tan: Ameztiako festak, Udaberri Festa,

San Pedroak...

Horrez gain, herriko eragileek eskuartean dituztenak ere ezagutzeko aukera duzu. Eta baita azken hilabeteetan gertatutakoak ere. Guztia 89 zenbakidun ale honetan.

Igeldon
EH Bildu
izan da nagusi

Apirilaren 21ean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izan ziren eta Igeldon EH Bilduk jaso zituen bozka gehien.

Emaiza orokorrak kontuan hartuz, EAJ eta EH Bilduk 27na eserleku lortu dituzte, jeltzaleak aurretik egonda botoetan. PSE-EE hirugarren indarra izan da, 12 eserlekurekin. PPK 7 eserleku lortu ditu. Sumarrek eta Voxek eserleku bana eskuratu dute.

IGELDOKO EMAITZAK

EH BILDU: 304
EAJ-PNV: 117
PP: 58
PSE-EE: 27
SUMAR: 8
ELKARREKIN PODEMOS: 7
VOX: 3
PACMA: 2
ESCAÑOS EN BLANCO: 1
IZAN: 1
Txuriak: 5
Nuluak: 1
ZENTSOA: 850
**Abstentzioa %37,18*

San Pedroak
ate joka

San Pedro jaietarako gero eta gutxiago geratzen da. Jai Batzordekoak buru-belarri dabilta prestaketa lanetan eta egitaraua ixten. Festa egunak behintzat zehaztu dituzte. Ekainaren 22an kirolaren txanda izango da: krosak eta pala/eskupilota txapelketen finalak jokatu dira. Ekainaren 23an San Juan bezpera ospatuko da: Arrokako arrantza lehiaketa, txaparroen prestaketa, fajitekin afari-merienda, San Juan sua eta eskea... Ekainaren 28tik aurrera izango dira egun nagusiak. Aurten, gainera, San Pedro Eguna larunbatarekin tokatuko da. Hamaiketakoa, herri kirolak, idi dema... ohiko ekintzak ez dira faltako. Umeen eguna, berriz, uztailaren 1ean izango da. Santa Ixabel egunarekin, uzta-laren 2an bukatuko dira festak.

Plazako komunak
behar bezala
erabiltzeko mezua

Herri Kontseiluak mezua zabaldu nahi die gurasoei plazako komun erabilera dela eta: «Azken aldian plazako komunak nahiko zikinak daude umeek lokatza eramaten dutelako bertara. Gogorarazi nahi dugu komun publikoak beraien funtziorako direla eta ahalik eta ondoen zaindu behar direla denontzat erabilgarri egon daitezen. Mesedez, kontuan hartu dezazuen eskatzen dizuegu».

Juntakide berriak
martxan dira
Din-din elkarte

Martxoaren 17an urteko batzarra egin zuen Din-din elkarteak. Besteak beste, junta berria osatzea onartu zuten. Bi urtez juntan lanean aritutako hiru kideak atera ziren: Iraitz Santa Kruz, Xabi Imaz eta Josu Izagirre. Beraien orde, beste hiru kide sartu dira: Beñat Perez, Iñaki Berzosa eta Ander Zubeldia. Urtebete daramaten beste hiru kideekin osatuko dute taldea orain, Pello Galarraga, Iker Bazterrika eta Ibai Beñaranekin.

Ameztiko festak ospatuko dira berriz

Maiatzaren 18an izango da festa. Dena dela, eguraldiak laguntzen ez badu, hurrengo larunbatera atzeratuko litzateke.

Ameztiko festak ospatuko dira bigarren urtez. Antolatzaileek bere garaian adierazi zuten bezala, bi urte eta gero berriz girotuko dute Amezti. Maiatzaren 18an jarri dute hitzordua.

Buenavistan hasiko da festa pregoia, zinta mozketa eta abestia-ekin. Ondoren, Ameztiko etxeetan zehar ibilbidea egingo dute. Geldialdi bakoitzean ekimen bat egingo da: altxorraren bila, kontzertua, barrena... Furgobarra egongo da eta horrez gain, pintxo edo vermutha hartzeko aukera izango da geldialdiko etxeetan. Bazkaria ere antolatuko dute Buenavistako zelaian parrila, txotx eta kontzertuarekin. Arratsalde pasa ederra antolatu dute. Haurrentzako jolasak izango dira.



2022ko maiatzan egin ziren lehenengo aldiz Ameztiko festak.

Txartelak aurrez

Bazkariko txartelak aurrez erosi beharko dira (Iko edo Txapelan) eta bazkaria mugatua izango da. Dei egiten diete denei: «Igeldotar guztiak gonbidatzen zaituztegu

gure auzoko jaietara! Aupa Igeldo eta aupa Amezti!».

Gogorarazi dute eguraldi txarra egiten badu, astebate atzeratuko dutela festa, hurrengo larunbatean izango litzateke.

Festak, Udalekuak eta beste hainbat kontu gurasoen eskutik

Umeen egunean laguntzeko gazteak behar dituzte eta Udalekuetarako begiraleak ere bai. Eskola Txikietako festarako autobusa jarriko dute.

Guraso Elkartek hainbat kontu ditu eskuartean. Alde batetik, San Pedro festetako Umeen Eguna antolatzen ari dira eta gazteen laguntza behar dutela jakinarazi dute. Uztailaren 1ean izango da. Prest dagoena harremanetan jarri dadila dei egin dute.

Bestetik, Udalekuak antolatzen ere hasi dira eta begiraleak behar dituztela jakinarazi dute. Aurten 3 txandatan banatuko dira: ekaineko azken hastera, uztailako 1. hamabostaldia eta uztailako 2. hamabostal-

dia. Begirale izateko, gutxienez 16 urte behar dira. Interesatuak harremanetan jarri daitezela.

Eskola Txikien festa Adunan

Aurten Eskola Txikien festa Adunan ospatuko da ekainaren 16an. Mendizorrotz Guraso Elkartek autobusa antolatuko du bertaratu nahi duten guztientzat. Oraindik ordua zehazturik ez dagoen arren, irteera goizean izango da eta itzulera arratsaldean, bazkaldu ondoren. Bestalde, Adunan bazkari

herrikoia antolatzen da bertaratzen direnentzat.

Beraz, autobusean joan nahi dutenak jarri daitezela harremanetan Mendizorrotz Guraso Elkarteararekin (lehentasuna Igeldoko eskolako umeek eta familia kideek izango lukete). Behin apuntatuta daudenei egingo zaie bazkarirako deialdia.

Kasu guztietan harremanetan jartzeko bidea: gurasoelkartea@igeldo.eskolatxikiak.eus.

Bestalde, Igeldoko Eskolako festa ekainaren 8an izango da.

Jubilatuak Artikutzan ibili dira

Igeldoko Jubilatuen Elkarteak antolatuta, apirilaren 3an Artikutzako naturgunera bidaia egin zuten. Urtegia izandako para-je eder horretan 34 pertsona elkar-tu ziren, 2004tik Europako zaintza berezien natura-ondare sarean sartuta dagoen lurraldea gertutik ezagutzeko asmoz. Taldearen parte batek, lehengo urtegiaren inguruan 4km-ko ibilaldia egin zuen gidariaren azalpenak entzunaz. Bigarren taldekoek, beste gidaren laguntzarekin, Artikutzaren historia eta ematen ari diren alda-ketak ikusentzunezkoen bidez eza-gutzeko, bertako natur eskolan gelditu ziren.



Artikutzari buruzko azalpenak jaso zituzten.

Artikutzako historia

Erdi-aroran, Orreagako fraide agus-tinoen eskuetan egon zen lurralde honen jabetza. Hemeretzigarren mende hasieran, Mendizabalen desamortizazioaren ondorioz, esku pribatuetara pasatzen da. Garai honetan lurralde honen ustiapena oso handia da: zuhaitzen mozketa burdinoletako ikatza egiteko, meatzaritza lanak ere oso nabar-menak dira, bertako baserrietan ere ganaderitza zeregin garrantzi-tua da. 1896an meatzari trenbi-dea eraikitzen da Artikutzatik Erreteriraino.

Donostiako Udalak urtegia egiten du

1919an Donostiako udalak 3700 hektarea dituen lurraldea erosten du. Une honetan, ura kutxatzeko arriskua duten aktibitateak gale-razten dira: baso, meategi eta ganaderitza ustiapenak debeka-tzen dira, inguruetako baserrietan bizi ziren familiak Artikutza auzora eramaten dituzte bizitzera eta pertsonen sarrera ere murrizten da. 1976tik aurrera, Donostia urez hornitzeko lanak, ibaian beherago dagoen Añarbeko urtegiak

ordezkutzen ditu.

Ingurumenaren aldeko apostua

Orain urtegia ustu ondoren, berta-ko presa txikiak eta noriak kendu dira ibaiak beren egoera naturalera bihurtu ditezten. Lurralde honetako basoak, fauna eta flora bere natu-raltasunean babestu nahi dira.

Artikutzako bidaiari bukaera emateko, Oiartzungo jubilatuen egoitzako jatetxean lagun arteko bazkariarekin amaitu zuten irtee-ra.

Martxoan jokatu ziren finalak

Neguko Pala Txapelketako finalak martxoaren 15ean joka-tu ziren. Bigarren mailan, Josu eta Txube nagusitu zitzaizkien 25-14 Arregi eta Arrutiri. Nesketan, Mitxelena-Mitxelena izan ziren txapeldun 25-9 Laburu-Lertxundiri irabazita. Eta Lehenengo mailan, Luixa-Luixak jantzi zuten txapela 25-20 irabazita Aldazabal-Arregiri.



Laister hasiko dira Ikoko aparkalekua berritzeko lanak

Ikotik jakinarazi dutenez, berehala hasiko dira aparkalekua berritzeko lanekin. Maiatzerako obra martxan izatea aurreikus-ten dute.

Bestalde, gogorarazi nahi dute ordutegi berriarekin ari direla lanean. Astelehenetik osti-ralera, goizez 9:00etatik 14:00etara egongo da zabalik

eta arratsaldetan 16:30etatik 20:00etara. Larunbatetan, berriz, goizez egongo da irekita 9:00etatik 14:00etara.

Maiatzak 19 batzarra

Urteko batzarra egiteko asmoa ere azaldu dute. Maiatzaren 19an izango da. Bazkideei luza-tuko diete deialdi zehatza.

Bota puntua

TOKIKO ENTITATE TXIKIA LAINOPEAN

Apirilak 14, iritsi zen eguna, TET eratu ala ez igeldoarron esku zegoen. Itsas Aurreko atea ireki bezain pronto agertu ziren komunikabideak eta politikariak: EAJko Eneko Goia Donostiako alkatea eta Maria Jesus Idoeta auzoetako zinegotzia etorri ziren lehenbizi; handik gutxira heldu ziren EH Bilduko ordezkariak: Nerea Kortajarena, Maialen Iriarte eta Juan Karlos Izagirre.

Goiza eguzkitsua zen eta 11:00etarako nahikoa jende ikus zitekeen plazan. Komunikabideak aurrera eta atzera, jendeari galde-za etengabe, eta albistegietan Igeldo protagonista. Iluntzeko 20:00ak jo zutenean oso jende gutxi zegoen boto kontaketaren zain. Eraitza jakin orduko -botoen %85 TET-en aldekoak- Itsas Aurren bildu-tako kazetariak adierazpenak jasotzeko prest ziren, jendartearen alga-ra eta poza erakusteko irrikaz, xan-pain botilen kortxoak gora eta behe-ra ikusi nahian... Itsas Aurre atarian baina, ez zegoen ez xanpainik, ez festarik...

Hura zen tristura, hura axolaga-betasuna. EITBk zuzenean eman-dako albistegietan ere irudiak tris-teak ziren oso, kazetaria lanbro artean azaltzen baitzen, bakarrik.

Hori ikusita, Artzeren olerkiaren hasiera etorri zitzaidan burura: "Maite ditut maite gure bazterrak

lanbroak ezkututzen dizkidanean, zer ezkututzen duen ez didanean ikusten uzten...."

Laino/lanbro azpian Herri Kontseiluko kideen bakardadea agerian geratu zen: Ia 4 urtez egindako lan eskergak ez zuen herritarron esker onik izan (dihoa-kiela hemendik nire aitortza).

Goizean ez bezala, jenderik ez zen bildu! Igeldo ziklo politiko berri batean sartzera zihoan unean plaza hutsik zegoen. Ez argazkirik, ez barrikoterik, ez ospakizunik! TET izango dugula ospatzeak nor-baiti mesede edo kalte egingo zio-lakoan... Hori da hori politika hizki txikiz idaztea!


Alex Aisa Alberdi

ERREBOLUCION

Urte luzez gizartean izan da ideia bat egia ez dena. Ezagutzen duzu

lau hanketara dagoen tximinoaren irudia zeinetan, zutitzen doan eran, gizaki itxura hartzen duen? Eboluzioaren ideari buruz ari naiz. Irudi horrek irudikatzen omen zuen gizakiaren eboluzioa eta, Darwinek esan zuenez, gauza jakina zen que gizakia tximinotik o algo así zetorrela. Como Darwinek esan zuen, pues era verdad. Sin más. Pero Darwinek ez zuen halakorik esan, aizu. Eta como azaltzen zen telebistan y todo, pues que la gente se lo creía. Baina gizakia ez dator del mono. Claro que no. Darwinek esan zuen que no. Lo que pasa es que daukagula jatorri berdina, y entonces gendea se confunde. Y yo creo que marrazki hori es bastante significativa y creo que ilustra muy pero que muy bien cómo puede una cosa derivar en otra. Sirva de ejemplo el idioma: podría perfectamente ilustrar la evolución del uso del euskera en nuestra sociedad.

Arantxa Txintxurreta Agirre





Toki Entitate Txikiaren alde 391 herritarrek eman zuten botoa.

IGELDOKO TOKI ENTITATE TXIKIA - HERRI KONTSEILUA:

«Onura batzuk nabarituko ditugu, baina erabatekoa izateko denbora beharko dugu»

Igeldoko Toki Entitate Txikiaren inguruan herri galdeketa egin zen apirilaren 14an.

462 herritarrek eman zuten botoa eta %85a aldekoa izan zen. Hori horrela, Donostiako Udalak Foru Aldundiaren esku utzi du espedientea beronek erabakia hartu dezan. Ahalik eta azkarren izatea espero da. Herri Kontseiluko kideekin elkartu gara gaiaren inguruan hitz egiteko. Herri Batzarra deituko dute laister.

Hasteko, galdeketaren inguruan ze balorazio egiten duzue?

Positiboki baloratzen dugu 462 herritarrek parte hartu izana. Urte hauetan zehar hainbat batzar eta bilera egin ditugu, lanketa handia egin da, jendea gerturatu da, baina prozesu osoan konturatu gara askorentzat arrotza egiten zaiela oraindik Entitate Txikiaren kontua. Zaila egiten zaie zer izango den iru-

dikatzea. Hori horrela, eta galdeketa ez zela loteslea kontuan izanik, benetan baloratzekoa egiten zaigu 462 herritar horiek beraien iritzia ematera gerturatu izana.

Horrez gain, urte hauetan egindako batzar eta bileretara jendea gerturatu da, baina galdeketa gerturatu zen jende asko batzarretara etorri gabea zen. Parte hartzea anitza izan zen eta hori ere oso

baloragarria egiten zaigu.

Eta noski, %85ak Entitate Txikiari baiezkua eman izanak, pisua eta indarra ematen digu bide honetan pausoak ematen jarraitzeko.

Foru Aldundiak hartu behar du orain erabakia. Noizko izan daitekeela aurreikusten da?

Donostiako Udalak apirilaren 19an utzi zuen espediente Foru Aldundiaren esku. Azaldu dutenez, gehienez hiru hilabeteko epean hartu behar du erabakia legearen arabera, baina prozesua ahalik eta azkarren egiteko asmoa azaldu dute. Horiek horrela, ekaina ingurua daukagu burutan, baina datarik ez dago.

Igeldo Entitate Txiki gisa sortzea erabakitzen bada, zein da hurrengo pausoa?

Gestora bat izendatuko du Foru Aldundiak Entitate Txikia martxan jartzeko. Gestora horrek hurrengo Udal Hauteskundeak egin bitartean izango du Entitate Txikia gidatzeko ardura. 5 kidek osatuko dute eta azken Udal Hauteskundeetan aurkeztutako alderdiek Igeldon lortutako emaitzen arabera izendatuko ditu kide horiek Foru Aldundiak. Hau da, EHBilduko 4 kide eta EAJ-PNVko kide bat izango lirake.

Alderdietako ordezkariak izango genituzke orduan?

Legeak hala dio, baina guk egokiagoa ikusten dugu herriko ordezkariak izatea. Beste kasuetan ere, dela Ereñotzun edo Itziarren, halaxe egin izan dute eta guretzat ere eraginkorragoa dela ikusten dugu. Gure kasuan, Herri Kontseilua aritu da Udal teknikariekin lanean hau dena aurrera eramateko. Eta oraindik ere lanean jarraitzen dugu behin TETa eratuta, berehala martxan hasteko. Lanketa guztia ez eteteko eta TETa behar bezala martxan jarri dadin, Herri Kontseilutik prest gaude gestora horretan sartzeko.

Aukera hori posible izan dadin, Donostiako Udaleko alderdi guztiekin bilerak izaten ari gara eta Foru Aldundiarekin ere hitz egitekoak gara.

Zer gertatuko da Herri Kontseiluarekin?

Urte guzti hauetan, Herri Kontseilua igeldotarron ordezkaria izan da eta oso funtzio garrantzitsua bete du. Orain TETa izango dugu eta zentzu askotan ordezkatu egingo duela ikusten dugu, baina ez erabat. Hemendik urte batzuetara ez dakigu zein egoeratan egongo garen, baina oraintxe bertan Herri Kontseiluak jarraitu behar duela ikusten dugu, nahiz eta beste funtzio batzuekin izan.

Gainera, gure ustetan eta azken batzarrean ere halaxe adierazi eta onartu zen, 5 kideren gain baka-



rrik ezin dugu utzi TETaren etorkizuna. Lan asko dago eta egongo da egiteko eta talde zabal bat behar dugu honek ondo funtzionatzea nahi badugu. Ordezkari ofizialak 5 izango dira, baina atzetik jende gehiago behar da lanerako. Herri Kontseiluko kideak prest gaude talde zabal horren parte izateko herritar gehiagoren laguntzarekin batera. Antolaketa horri forma eman nahian gabilta.

TETa sortu eta berehala martxan jartzeko lanak aurreratzen ari zaretela azaldu duzue. Zertan ari zarete zehazki?

Alde batetik, zerbitzuetako kontratuak aztertzen ari gara: kale garbiketa, bideetako mantenua, lorategi eta berdeguneak, komunak... Berez gure eskumenak izango dira, baina kontratuekin lotuta daudenez, aztertu egin behar dugu noiz eta nola hasi, eta nola hobetu nahi dugun. Bestetik, badira eskumen batzuk azterketa sakonagoa eskatzen dutenak eta arlo desberdinetako teknikariekin biltzen ari gara eskumen bakoitzaren atzean dagoena ezagutzeko: planeamendua, hirigintza disziplina...

Horrez gain, TETaren egitura juridiko-administratiboa sortzeko pausoak zehazten ari gara eta ahal dena aurreratzen. Zeregin horretarako, Donostiako Udaleko langilea den eta Igeldon bizi den Administrazio Orokorreko Teknikari bat jarri digute gure teknikari propioa izan bitartean.

Bestalde, TETaren behin behineko egoitza Itsas Aurren izango da eta egokitze lanak ere aurrera doaz. Laister hasiko dira sarrerako koskak kentzen

eta harrera gunea, bulegoak eta aterpea egiten.

Beste lan bat aurrekontua prestatzea da. Donostiako Udalak urte erdirako aurrekontua kalkulatzen du ekainerako TETa sortu daitekeela aurreikusiz. Behin Foru Aldundiak TETa sortu eta gestora izendatzen duenean, lehenengo batzarra egin beharko du gestorak eta bere aurrekontua onartu beharko du. Aurrekontuak aurten gauzatu ahal izateko behar diren prozedura guztiak jarraituz maiatzaren 15ean erdirako prest izatea komeni da.

Aurrekontuak hain azkar prestatzea ez da erraza izango zuentzat...

Batere ez. Denbora tarterik ez dugu batzordeetan landu eta beharrak behar diren bezala aztertzeke. Egia da arlo asko lotuta daudela: kontratu bidezko zerbitzuak, diru laguntzak... horiek ezingo ditugu hasiera honetan TETaren bidez gauzatu beraz, Donostiako Udalari dirua itzuli beharko diogu. Baina beste partida batzuk guk exekutatzeko aukera izango dugu. Kasu horietan, orain egiten denari eutsi eta ahal den neurrian hobekuntza batzuk egitea da helburua.

Inbertsioaren atalarekin ere antzekoa gertatuko zaigu. Dirua izango dugu, baina gauzatu ahal izateko bete behar diren prozedurak direla eta urte erdian ezin dugu inbertsio handirik egin. Potoloak baldin badira, prozedurak luzatzen direlako eta ezingo genituzkeelako urte honetan gauzatu. Beraz, horrekin ere mugatuta gabilta. Behintzat, remanentea izateko aukera dugu eta gastatzen ez duguna datorren urterako gorde dezakegu.

Baduzue zerbait aurreratzerik?

Asmoa da Itsas Aurre gehiago egokitzea: igogailua jarri, kanpoko mantenua egin, terraza estali espazioa irabazteko... Hortik aurrera, esan bezala, orain artekoari eutsi eta ahal dugun neurrian hobetzea izango da helburua. Hala ere, ahalik eta azkarren batzar bat egin nahiko genuke guztiaz hitz egiteko.

TETaren onurak nabaritzeko denbora beharko dugu orduan?

Onura batzuk segituan izango dira. Esan bezala, Itsas Aurre egokitzeko lanak laister hasiko dira. Horrez gain, TETaren egoitza (Eskola Zaharra) 2027rako konpontzeko konpromisoa hartu du Udalak eta hori TETaren sorrerarekin lotuta dago zuzenean. Eta esan bezala, dirua izango dugu urte honetan bertan gastatzeko eta zerbitzu batzuk edo arlo batzuk puntu batean hobetzeko: kultur eskaintza, aisialdia, parte hartzea...

Hala ere, egia da pazientzia eta denbora beharko dugula benetako onurak nabaritzeko. Egitura guztia

AURREKONTUA 2024
(sei hilabete)
Gastu arrunta: 500.000€
Inbertsioak: 291.164€

2027KO HAUTESKUNDEAK
Alkatea: zuzenean aukeratuko dute igeldotarrek.
Juntakideak: 4 juntakide Donostiako Udalean aurkeztutako alderdiek igeldon lortzen dituzten emaitzen arabera.

ESKUMENAK	
A blokea:	B blokea:
-Bide publikoak	-Hirigintza
-Parkeak eta lorategiak	-Etxebizitza
-Kale garbiketa	-Ingurumen zerbitzuak
-Argiteria publikoa	-Turismoa eta garapen ekonomikoa
-Hezkuntza arloa	-Hondakinak bildu eta tratatzeko kudeaketa
-Eraikin publikoak	-Ur hornidura eta saneamendua
-Adinekoen sustapena	-Hilerri zerbitzua
-Kultur jarduerak eta jaialak	
-Euskara sustatzea	
-Kirol jarduerak, ekipamenduak	
-Parte-hartzea, berdintasuna, gazteria, aisia...	
-Administrazio orokorra	

hutsetik sortu beharko dugu eta eskumen askotan, nahiz eta gureak izan, kosta egingo da erabateko gestioa bertatik egitea. Eskumen batzuren aldaketak gauzatzeko denbora beharko dugu. Eta beste eskumen batzuk oraindik aztertzeke eta adosteke daude. Horrez gain, langileak hartzeko ere hautaketa prozesu bat jarraitu beharko dugu. Horregatik diogu denbora beharko dugula aldaketa sakonak ikusteko.

Bukatzeko, beste zerbait esan nahiko zenukete?

Lehen aipatu dugu lan talde zabal baten beharra ikusten dugula TETak behar bezala funtzionatzeko. Lan talde zabal hori osatu nahian gabilta. Gure plan-teamendua da hiru batzordetan banatzea: Batzorde Orokorra (TETaren egituraketa, Udalarekin negoziaketa...), Zerbitzuetako Batzardea eta Batzorde Soziokulturala. Herritar batzuk prest azaldu dira batzorde horietan sartzeko edo arlo batzuetan laguntza puntuala emateko. Aprobetxatu nahi dugu deialdia egiteko herritar gehiago gerturatu dadin.

Jendeak ilusioz hartzea nahi dugu. Lan egin beharko dugu, pazientzia izan beharko dugu, baina gauza asko lortzeko aukera izango dugula ikusten dugu. Igeldo hobetzeko aukera izango dugu!

Gela bakoitza bere proiektuarekin

Oporren bueltan, indartsu etorri dira Eskolako kideak eta gela bakoitza bere proiektuarekin hasi da lanean. Haur Hezkuntzako ikasleak Olinpiadak prestatzen hasi dira, gorputzaren zainketa-ekin eta elikadura osasuntsuarekin lotuta. Lehen Hezkuntzako geletan, berriz, makinak eta energiak landuko dituzte ikerketa desberdinak eginaz (robotika, esperimentuak...).

Kirol topaketa Tolosan

Apirilaren 19an Tolosara joan ziren LHko ikasleak Gipuzkoako Eskola Txikietako kirol topaketan parte hartzera. Oso giro ona izan zutela eta beraiekin jolasten primeran pasa zutela azaldu dute.

Korrika Txikia gogoan

Bigarren hiruhilekoa berezi bukatu



Apirilaren 19an Gipuzkoako Eskola Txikietako kirol topaketak egin zituzten.

zutela gogorarazi dute Korrika Txikia tarteko. Goizean, 2. eta 3. zikloko ikasleek Antiguako Korrika Txikian parte hartu zuten inguruko beste

eskolekin. Arratsaldean, berriz, Igeldon egiteko aukera izan zuten eskolako ikasle guztiek familiekin batera. «Hiruhilekoa amaitzeko, plan ona!».

Ekintzak iruditan

KORRIKA 23

Igeldo herria korrika!

Korrikarekin bat eginez, Igeldon hainbat ekintza egin ziren martxoaren 22an. Arratsaldean, Eskolako ikasle, irakasle, guraso, familia eta herri-tarrek Korrika Txikia egin zuten kaxkoan zehar. Iluntzean, elkarrekin afaltzeko aukera izan zen Itsas Aurrean.

Martxoaren 23an, berriz, Antiguon elkartu ziren herritar ugari Igeldo Herriaren izenean hartutako kilometroan parte hartuz. Jabier Iraolak, Larraitx Dorronsorok eta Iker Zinkunegik eraman zuten lekukoa, Igeldoko liburuarekin egindako lanaren ordain moduan.



MARTXOAK 8

Urteroko hitzorduari hutsik ez

Urtero bezala, Martxoaren 8aren bueltan, herriko emakumeek hainbat ekintza antolatu zituzten Igeldon. Bezperan, herria apaindu zuten eta Martxoaren 8an Donostiako manifestaziora joan ziren elkarrekin. Hurrengo egunean, larunbata, goxatze-tailerra egin zuten Itsas Aurren. Bost emakume bakarrik elkartu ziren, baina benetan merezi izan zuela eta momentu atseginaz gozatzeko aukera izan zutela adierazi zuten. Ondoren, urteroko afaria egin zuten Etxe Nagusin 49 emakumek. Primeran afaldu eta giro ederrean ibili ziren. Bingoan jolastuz, bertako produktuz



osatutako saski ederraren zozketa egin zuten. Arantxa Arruti izan zen irabazlea. Linearekin, oparitxo batzuk ere eraman zituen Karmele Garmendiak. Zorionak bie!



USANSOLO

Igeldotik zorionak!

Bizkaiko 113. udalerria da Usansolo abenduaren 28tik eta hori ospatzeko "Lortu dogu" jaia antolatu zuten martxoaren 9an. Igeldotarrak gonbidatu zituzten festara eta taldetxo bat bertaratu zen, desanexioaren borrokan urtetan izandako harreman eta elkarlanaren erakusgarri. Igeldotarrak, gainera, ez ziren esku hutsik joan. Igeldoko Ametz bat eraman zuten bertako belardian landatzeko eta ingurua apaintzeko arroketatik hartutako harri pareta ere bai, Igeldoko 89 zenbakiarekin eta Usansoloko 113arekin. Horrez gain, txapela bat eta Igeldoko liburua ere eraman zizkieten. Giro ederrean ibili ziren eta pozik ospatu zuten Usansoloren lorpena.



MUS TXAPELKETAK



Usurbilera joan dira Lapak

Lapa Txapelketa jokatu zen martxoan zehar eta hiru saioaren ostean, Usurbilgo Juantxo eta Aitor izan ziren txapeldunak. Azpitxapeldunak Miguel eta Aitor igeldotarrak izan ziren. Atzetik geratu ziren Lazaro eta Luixen, eta Guille eta Txutxi. Bestalde, Mus Txapelketa azkarrek ere jokatu ziren otsaila eta martxoko ostiraletan.

Antolatzaileek balorazio azkar bat egin dute txapelketen inguruan eta partehartzea ez dela oso ona izan azaldu dute, gainera herriko jendea oso gutxi gerturatu omen da. Datorren urterako buelta batzuk eman beharra ikusten dute.

BERTIZARANERA IRTEERA



Arroilak, tirolinak eta mendi buelta lagunartean

Aurten ere, Gabon eskean ateratako umeekin asteburu pasako irteera antolatu du guraso talde batek. Bertizaranera joan ziren apirilaren 27 eta 28ko asteburuan. Adin ezberdinetako 41 ume eta gaztetxo apuntatu ziren eta Bertizgo abentura parkean ibili ziren lehenengo egunean. Asmoa zen goizean arroilak egin eta arratsaldean gaztetxoak tirolinetan ibiltzea, baina eguraldi kaxkarrarekin, plana aldatu zuten. Gaztetxoek goizez egin zituzten tirolinak eta arroilak. Ondoren, Elizondoko frontoian bazkaldu zuten eta Lekaroz aldera bueltatzea eginda, Narbarteko aterpetxera joan ziren autobusez.

Igandean, egun pasa joateko aukera izan zuten Haur Hezkuntzako umeek familiekin, eta 6 familia animatu ziren. Denek batera, eguraldi bikaina lagun, mendi buelta egin zuten. Ondoren, Narbarteko aterpetxean bazkaldu, jolasak egin eta Igeldorako autobusa hartu zuten.



Aizkora jaialdia izango da Udaberri Festaren barruan

Udaberri Festak lau egunetan ekarriko ditu ekintzak. Batez ere, maiatzaren 11-12ko asteburuan izango dira, baina San Isidro Egunez eta maiatzaren 18an ere izango dira.

Udaberri Festa honetan ekintza desberdin ugari izango ditugu. Batez ere, maiatzaren 11-12ko asteburuan izango dira eta nabarmentzekoa da Aizkora eta harrijasotzaile jaialdia egingo dela igandearekin. Arkaitz Etxebeste igeldoarra Iker Vicente-rekin ariko da Ibai Soroa eta Ugaitz Mugerzaren aurka. Harrijasotzen Udane Ostolazaren erakustaldia ikusteko aukera izango da.

'Bizkarsoro' pelikula

Zeresana ematen ari den *Bizkarsoro* pelikula ikusteko aukera ere izango da maiatzak 11 larunbatean. Umeen-tzako bizikleta eta patin saioa ere bai. Eta iluntzean, euskal reggae saioa.

Igande goizerako azoka antolatu dute: loreak, bigarren eskuko arropa Onin Pintagen eskutik eta gehiago.



Afaria Calongen

San Isidro Egunean bertso musikatuekin gozatzeko aukera izango da. 'Antxuak balia' emanaldia ekarriko dute herriko Jubilatuek. Ondoren, afaria izango da Calongen. Joan nahi duenak izena eman beharko du aurrez: 656 00 84 55. Bukatzeko maiatzaren 18an poltsikoko antzerkia egongo da.

Maiatzak 11 larunbata

17:00 bizikleta eta patin roller zirkuitua kantxan.

Oharra: kaskoa eta babesgarriak beharrezkoak dira.

19:00 "Bizkarsoro" pelikula Itsas Aurren.

21:00 Gailurretik Euskal Reggae Selektion plazan.

Maiatzak 12 igandea

10:00-14:00 azoka plazan:

Onin Pintage, loreak eta gehiago.

12:30 Aizkora eta harrijasotzaile jaialdia plazan.

Aizkolariak: Arkaitz Etxebeste-Iker Vicente vs Ibai Soroa-Ugaitz Mugerza
Harrijasotzailea: Udane Ostolaza.

Maiatzak 15 asteazkena, San Isidro Eguna

19:00 "Antxuak Balia" bertso musikatua Itsas Aurren.

20:30 Afaria Calongen (35€).

Erreserbatzeko azken eguna maiatzak 12 (igandea).

Telefono honetara deitu edo idatzi: 656 00 84 55.

Maiatzak 18 larunbata

19:30 Poltsikoko antzerkia Itsas Aurren.

OHARRA

Iritzi-artikulua argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarriarik gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak uztailean eta urrian izango dira (igeldokoorria@gmail.com).